

Donostia, 2017ko otsailaren 17a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, "2017. DONOSTIA, NAHI DUZUN HIRIA" ESKUORRIA DELA ETA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa otsaileko Zerbitzu Orokorren Batzordean "2017. Donostia, nahi duzun hiria" eskuorriari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako herritarrek etxean "2017. Donostia, nahi duzun hiria" eskuorria jaso dute, eta bertan alkatea herritarrei zuzendu zaie, gure hiriarentzat —bidalitako eskuorriaren arabera, guztiona den hiriarentzat— jarritako erronka batzuk azaltzeko asmoz.

Hala ere, eskuorrian herritarrei dei egiten die haien proposamenak, kritikak edo ideiak helbide elektroniko batera bidal ditzaten. Hainbatetan entzun dugu gobernu hau gardena dela. Horregatik, ez dugu ulertzen zergatik erabaki den herritarrei alkatetzaren helbide elektronikoa ematea, gainerako taldeek kontsultatzeko moduko postontzi ireki eta partekatu bat —Udalinfoarena, kasu— eman beharrean. Herritarren kexak eta iradokizunak oso tresna baliagarria dira, hiria hobetzeko ideiak ematen dituztelako. Hori dela eta, ezinbestekoa iruditzen zaigu Udalbatza osatzen dugun talde politiko guztien artean partekatzea kexak eta iradokizunak.

Batzordean, erantzun ziguten alkatetzak ondo deritzola gainerako taldeekin informazioa partekatzeari, betiere pribatutasuna errespetatuta, pertsona batzuek espresuki eskatu duten bezala.

Bestalde, Udalinfok badu aplikazio bat, Udalari zuzendutako jakinarazpenak tramitatzeko erabiltzen dena, eta eskuorriari erantzunez Alkatzetara iristen diren jakinarazpenak sailkatzeko ere erabili ahal izango litzateke.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalbatza osatzen duten gainerako taldeekin partekatu ditzala "2017. Donostia, nahi duzun hiria" eskuorriari erantzunez Alkatzetaren helbide elektronikora iristen diren iradokizunak.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, horretarako, erabil dezala Udalinfo aplikazioa edo egokitzen diren beste aplikazio batzuk.

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.